

PUXANA'TAR PEDRO (G.B.)

Berrogeta amar bat urte izango dira Puxana eza-gutu nebala. Gasteiz'en izan zan, laun-une zabal eta legor baten, ostaz-ostaz bizi ziran zugatz batzuren gerizpean. Arabarra zan, baiña Bizkai'ko euskerea egiten eban. Geiago be bere anaia eta Morga'ko abadea zan D. Enrike ezagutzen neban eta onen anai lez ezagun egin jatan Pedro be.

Samintasun apur bat artu gendun gure Pedro Josu-lagunen artera sartu zala entzun genduanean. Zergaitik ori? Baiña bere bidea jarraitu bear eban. Izan be bakoitxak daukagu bide bat mundu onetan egiteko.

Josulagunen artean Patxi Altuna ezagutu eban eta bien artean aztertu eben euskal-aditza. Ondo aztertu be! Ete dago Bizkaierearen aditzari buruz Pedro'k idatzi eban maillara eldu dan azterketarik? Ez dot uste.

Baiña urteak joan urteak etorri, gure Pedro Josu-lagunen artetik, urtenda, Gipuzkoa ta Bizkai'ko errietan abade aurkitzen dogu, idazle -lana itzi barik. Ederto euskeratu eban Bizkai'ko Forua, Estornes Lasa'ren lege-aldeko laguntzaz. Irakurle, irakurri ez ba'dozu irakurri egizu gure "lege zarra" euskeraz dakarren liburu eder au!

Puxanak, gaiñera, zaletasun aundia izan dau euskalkiak aztertzeke eta batez be Olaeta bere erriko euskerea aztertu dau, Araba'n egiten dana, baiña Bizkaierea edo, gaur batzuk esaten daben lez, men-debaldeko euskalkia.

Orrez gaiñera, noizean bein gure ZER onetara idaz-lan argi ta zeatz bat bialtzen izan dausku. Pedro'ren lan oneik beti izaten dira egokiak euskera-arloa jorratzeke eta erriak apurka-apurka nastatu dauzan gauzak bideratzeko. Itzi daigun alde batera galdu-antzean daukagun aditz zarra, Pedro'ren ustez Aurre-Apraiz'ek ain ondo darabillena eta gogoratu, esaterako, ze alde dagon "ur asko" esatetik ur-aundiak esatera, erderaz illuna dan "mucho" ori zeazten dala. Eta zenbat gauza geiago!

Urteak aurrera doaz eta, emen omenaldia an Euskaltzaindiaren "oor", emen Euskerazaintza eta an euskeraren etorkizuna, Pedro'ren urteak joan dira eta Aitak bere altzoan artu dau betokotasun zoriontsurako. ZER'en irakurleen eta beste euskaldun askoren izenean, eskerrik asko eta gero-arte.

ZER'EN IZENEAN
OLAZAR'TAR MARTIN, ZUZENDARIAK



Pedro Pujana Aguirregabiria jauna

(Abadea)
(Goian bego)

11letak

GAUR,
astelena, 5
Arratsaldeko
7,00retan

BILBOko
Begoñako
Gure Amaren
basilikan

Bilbon il zan atzo, 2001ko otsailaren 4an, 85 urte ebazala, Eleiza Amaren Sakramentuak eta Aita Santuaren Bedeinkaziñoa artu ondoren

Bere loba, Maria Dolores Aranguren, Jose Barbera, Kepane Aranguren, Pilar Aranguren (Angel Aranaren alarguna), Carmen Aranguren eta Gema Aranguren, Nekane Aranguren, Alexander Zubia, Irati Zubia eta Asier Zubia, eta beste senideak

(Funerarias Bizkaia. Telf. 94 439 56 18. Bilbao)